

Txosten hau, Euskaltzaindiaren ekintzarako hain premiazkoa denez gero, serokopiatuak Euskaltzaindiko lankide guztien artean kopia bana zabaltzea erabaki da.

Gai beraren jarraipenez, Mikel Lasa jaunak, epe luzerako eta epe laburrerako plangintzazko proposamenez, txosten labur bat irakurri du.

e) ITZULPEN ZERBITZUAZ:

Rikardo Badiola jaunaren txostena, Euskaltzaindiaren bulegoan orain arte egin dituen itzulpenen berri ematen du. Erabili dituen oinarriak zer izan diren, aurkitu dituen eragozpenak eta atera dituen esperientziak adiarazten ditu.

f) 1976 URTEAN BATZARRETARA ETORRI ZIRENEN ZERRENDA:

Idazkariak irakurri duen txostena. 1976an, euskaltzain osoetatik batzarretara agertuak, guztiz, 16; eta etorri ezina adiarazi dutenak, 3. Ohorezko euskaltzainak, 1. Batzarretara agertu diren euskaltzain laguntzaileak, guztiz, 55.

Barne-Erregelaren 43. artikulua agintzen duenaren arabera, etorri diren euskaltzainen artean, maiztasunari begiratuta, 1977. urterako dekanotza P. Lafitte jaunari ematen zaio, 13 batzarretara agertu denez gero.

g) BANKA HIZTEGIGINTZAREN kontu ematea egin du idazkari-ordezkoak. Eta J. M. Iriondo jaunak bere eginkizunaren berri eman du, lankideak nortzuk diren agertuaz, Donostian lanean diharduen taldean Euskaltzaindiaren ordezkari baitago. Beste aldetik istilu zerbait sortu da "Banco de Bilbao" k agenda bat argitara nahi duelako, Euskaltzaindiaren itzulpen zerbitzuak prestatua. Beraz, prozedura bikoizkeriak ez daitezzen sor, akademi onartze gradutapen mailak argitzeko eta lan guzti hauk nolabait Euskaltzaindiaren izenean egiten direnez gero, argi gelditu behar du agenda horrek ez duela Euskaltzaindiaren onartze ofizialik, baina bestalde argitaratzea ere ezin dezake gel araz.

Ohi den oitizarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
Juan San Martin

1977 - III - 27

Hazparden, elkar-mezaren ondorean, herriko frontoi berrian bildu dira batzar irekian: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, P. Larzabal euskaltzain jaunak; J. L. Alvarez Enparantza, M. Atxaga, I. Beobide, R. Camblong, J. Camino, J. M. Iriondo, M. Labeguerie, E. Salaberry eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Herriko agintarien partetik J. P. Larramendy auzapez-ordea mahai-nean eta jende andana polita entzule.

Lehendabizi Larramendy jauna mintzatu da, guziei herriaren ongi-etorria agertuz eta Hazparden euskaltzaletasuna adiaraziz.

Ondoren, euskaltzain buruak lehengo hazpandar euskal idazleak goretsitu ditu eta azkenik, egungo bilera zertan den adiaraziaz, Jean Hiriart-Urruty euskaltzain berria ongi-etorritz agurtuaz. Eta, Euskaltzaindiko batzarretan ohi den bezala, bertako lagunetarik norbait hiltzen delarik, Ixaka Lopez-Mendizabal ohorezko euskaltzainaren hil-berria aditzera eman du.

Ondorean, Larre eta San Martin jaunak lagundurik sartu da Hiriart-Urruty jauna sarrera-hitzaldia egitera. Bilduak txaloz egin diote ongi-etorria. Eta mahaira igotzeaz, dantzari batek ohorezko aurrezkuz agurtu du.

Biltzarkideak agurtu ondorean hasi zuen Hiriart-Urruty jaunak bere hitzaldia. Euskaltzaindian berak beteko duen hutsunea utzi zuen Louis Dassace zenaren goresmenak egin ditu lehen partean. Euskaltzale eta pilotazale zen euskaltzaina Eskualtzale Biltzarraren lehendakari izana zen eta Euskalduna, Gure Herria eta Herria aldizkarietan euskaraz anitz izkribatua. Oroimen honen ondotik Hazparneko euskaltzale handiez mintzatu da, bereziki hemeretzigarren mendeko bertsulari eta herriko kantu egileez: Galerianoaren kantuaren ondotik, Durruty, Chetre lehena, Petti Irigoien eta Mendiage. Kanta horien historia kontatuala, bertsurik hobere-nak Cassain eta Loyatho, herriko kantariak kantatu dituzte.

Jean Louis Davant euskaltzain jaunak eman dio ihardespena. Charriton eta Hiriart-Urrutyri zor zitzairen hezikuntzak eta euskaltzaletasunaz mintzatu zen lehenik; gero, Hiriart-Urruty jaunak Uztaritzen, Baionan eta Erroman bete zituen ikasketaz. Euskaldun Gazterriako omonier ohia, apez gisa, baita ere gizon eta euskaltzale bezala, esanaz horregatik hiru gauza horik elkarretarik ezin bereziak direla. Gainera, Gazte, Etchea, Herria eta Gure Herria aldizkarietan idatzi izan duela. Gaur egun Baionako apezpikuaren ordezkoro orokorra eta bikario generala dena.

J. Hiriart-Urruty jaunak diploma jaso du euskaltzainburuaren esku-tik eta Lafitte jauna makila eman dio Herria astekariko adiskideen ize-nean.